

MOTZEAN

EIBAR

Klubak ospakizun eguna izendatu du larunbata, «zaleak animatzeko»

Eibarrek larunbatean Kordobaren aurka arratsaldean jokatu du badu ere, klubak hainbat ekitaldi antolatu ditu egunean zehar zaleak animatu eta taldearentzako babes handiagoa lortzeko. Goizean Eibar eta Realaren arteko beterranoen partida bat jokatu da, Unben 11:00etan. Ordu berean, Txantxa zelaiako goiko plazan karpa bat irekiko da. Bazkari bat ere egingo da, eta klubak parte hartzera deitu ditu zaleak. Izena Oriotarra tabernan eman behar da.

OSASUNA

Iragan denboraldian baino bazkide gutxiago izango dituzte gorritxoek

Atzo jakinarazi zituen Osasunak bazkideen erantzunaren inguruko xehetasunak, eta iragan denboraldian baino babes txikiagoa jaso du orain artean Iruñeko taldeak. Iazko abenduan 16.072 bazkide zituen Osasunak, eta egun 14.727 besterik ez ditu. Gainera, hauek 719 bazkide berriak dira, beraz, 2.000 lagunek baino gehiagok utzi diote bazkide izateari azken bederatzi hilabeteetan. Salneurrien garestitzeak —%10 igo ziren— izango zuen zerikusirik.



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Osasunako zaleak, partida batean.

EIBAR

Aurrekontua onartuko da, gaur, Akziodunen Ohiko Batzarrean

Eibarrek Akziodunen Batzar Orokorra egingo du gaur. Ekainaren 18ko Ezohiko Batzarrean Juan Luis Mardarasek lehendakaritza utzi ondoren, Jaime Barriusoren lehen batzarra izango da gaurkoa. Moises Gonzalez diruzainaren agurrarekin hasiko da batzarra, eta gero altxortegiaren inguruko txosten bat irakurriko du. Aurreko denboraldiko kontuak onartu ondoren, aurrekontua aurkeztuko da, eta gero bozkatu egingo da. Azkenik, galderen txanda izango da.

Bikote ausarta

NIHAT ETA KOVACEVIC. Txikia bata, handia bestea, bikain uztartzen dira turkiarraren eta jugoslaviarraren ezaugarriak, eta bien artean taldearen zazpi goletatik bost sartu dituzte

Jon Balentziaga | DONOSTIA

Denboraldi hasierako modako bikotea osatzen dute. Zazpi gol egin ditu Realak bi partidatan — Athleticen aurka lau eta Espanyolaren aurka hiru — eta zazpi horietatik bost Kovacevic eta Nihat-ek sartu dituzte. Jugoslaviarrak hiru, eta turkiarrak bi. Batek eginiko goletan gainera, parte-hartze zuzena izan du besteak, Nihat-ek bi azken pase eman dizkiolako Darkori.

Garai bertsuan iritsi ziren Realera, iazko denboraldian, Espainiako Liga hasita zela. Abenduan Kovacevic. Urtarrilean Nihat, behin osatu ondoren. Turkiarra hasiera batean abenduan iritsi zen baita ere, baina medikuek bere fitxaketa atzeratzea erabaki zuten.

Aspaldiko ezaguna bata, lehenago ere Realean ibilia zelako. Tikitixa eta guzti, bi mila zaletu inguru bildu ziren Kovacevicen aurkezpenera. Nihat,

NIHAT KAHVECI

Realeko aurrelaria

«Kovacevic eta biok partida onak ari gara egiten elkarrekin. Ondo ari gara konpontzen»

berri, Toshacken gutizia izan zen, eta hasieran min hartuta etorri zenez, ez zuen susmo onik eragin bere etorrerak. Biek izan zuten hasiera zaila. Etorri eta berehala alde egin behar izan zuen berriz ere Darkok, bere anaia bat-batean hil zelako. Nihat, berriz, lesioa tarteko, uste baino gehiago kosta zitzaion ingurune berrira moldatzea. Jugoslaviarrak, hala ere, 19 partidatan 8 gol egin zituen. Turkiarrak, aldiz, 11 partidatan bat. Oso bestela hasi dute aurtengo denboraldia, batik bat, Nihat-ek. Mundiala jokatzeko freskotasuna eman dio. Kovacevici ere,

DARKO KOVACEVIC

Realeko aurrelaria

«Nihat oso ona da, jokoan zein pertsona gisa. Zelaian ezin hobeto konpontzen gara»

egundoko mesedea egin dio denboraldi aurea oso-osorik Realarekin egiteak. Fisikoki sasoi onean da.

Txikia bata, handia bestea. Azkarra oso Nihat, eta baloia jotzen ere ona. Kovacevic, berriz, bestelakoetan atzera gerta-

tu gabe, buruz da oso ona. Bata, goitiko jokoan da ona, bestea, behekoan. Euren ezaugarriak ezin hobeto uztartzen dira. Laudorioak dira nagusi bata besteari buruz hitz egiten duenean. «Oso ona da, jokoan zein pertsona gisa. Berdegunean ezin hobeto konpontzen gara», dio Darkok Nihat-ari buruz. Beste horrenbeste Nihat-ek. «Partida onak ari gara egiten elkarrekin. Ongi ari gara konpontzen». Hasi baino ez du egin aurtengo denboraldiak, baina bikote honek zeresan ugari eman dezakeela erakutsi du lehen bi partidetan.

OSASUNA

Alfredo hasierako hamaikakoan izango da Real Madrilen aurkako partidari

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA

Javier Aguirre mexikarrak ez du oraindik ezer baieztatu, baina atzo Alfredo jokalararen hitzak entzun ostean, ez da inolako zalantzarik: bera izango da Puñalen ordezkaria larunbatean Santiago Bernabeun Real Madrilen aurkako partidari. «Ez da erraza hamaikakotik erori eta hamabost egun barru, entrenatzaileak berriz zu hasieratik jartzeko erabakia hartzea. Larunbatean hasieratik jarriko nau entrenatzaileak, eta oraingo honetan ez hutsik egitea espero dut», esan zuen Alfredok, jada Aguirrerekin hitz egin duela aditzez.

Alfredo ezinbesteko jokalaria izan zen Lotinarentzat, baina jokoaren sistema aldatetarekin eta Vila-realean egin partida txarren erruz ordezkoren aulkian utzi zuen Aguirre-ek bigarren jardunaldian. Osasunako elastikoarekin inoiz jokatu partida txarrena jokatu zuela onartu zuen Alfredok Vila-realeko partida ostean. Orain, sasoi hobean dela erakutsi nahi du, eta bide batez amets bat ere bete du larunbat honetan: «Lesioak edo zigorrak tarteko, ez dut Lehen Mailako partidari jokatu Santiago Bernabeun, eta irrikaz nago. Zelai zaila da aurkariarentzat, baina pozgarria da han jokatzeko, dugun guztia ematera zelairatuko gara», onartu zuen atzo Alfredok. Bere ohiko postura itzuliko da, gainera, euskarri postura.



JON URBE - JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



TXIKIA ETA HANDIA. Oso bestelako aurrelariak dira Nihat eta Kovacevic. Turkiarra 1,75 metro luze da, eta jugoslaviarra, berriz, 1,88. Hala ere, ezaugarri ezberdinak eduki arren, bikain moldatzen dira hamaikakoaren puntan, eta elkarrekin primeran moldatzen dira zelaian.